

B14

Estandarteric onaena...

Ez dakigu lau bertso-lerro hauek bi distiko solte diren ala poema luzeagoren bateko zatia. B5 (*Sentidu baga castacen da...*) poemak ahapaldi egitura (9/10 -, 8 a) eta errima bera (-ea) dauzka, baina gaiari dagokionez ez dugu loturarik ikusten. Hemen bezala heriotzea eta Jesukristoren gurutzea aipatzen dituen poemak (B29, Pasio Santuari buruzkoa), berriz, ahapaldi-egitura erabat desberdina du.

<1180v> Estandarteric onaena
 Jesu Christoren curcea;¹
 gauçaric ezta ayn cierturic
 nola dan eriocea.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Ahapaldi osoa testu nagusiaren eskuinean idatzita dago, orrialdearen goiko aldean, B13 eta B16ren tinta berarekin eta idazmolde berean.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B14 – Estandarterik onaena...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

¹ *curcea*: ‘gurutzea’; *OEH*ren arabera, *kurtze* aldaera *Viva Jesusen*, Laudioko dotrinan eta Izagirreran Arantazu-Oñatiko hiztegian ere agertzen da, besteak beste; cf., orobat, “*Ez gera ardura / gure kontura / kondena ezazu kurtzera*. Balad 239”.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago